



## AUZO BILERAK 2023

**AUZO:** Arragua

Data	Hasiera ordua	Bukaera ordua
2024/09/30	18:00	20:00

### BILDUTAKOAK:

<b>Udal ordezkariak:</b>	<b>Agustin Lekuona, Edorta Fernandez, Garazi Urdampilleta eta Jexux Olaziregi</b>		
<b>Herritarrak:</b>	Euskaraz: 15		Elebitan: 11
	Emakumezkoak: 11		Gizonezkoak: 15
	<30 urte:	31-50 urte: 7	51-65 urte: 8 >66 urte: 11

### AKTA:

Gaia	Ekarpena eta iruzkinak
<b>Aurkezpena</b>	Batzarrean landuko diren gaiak aurkeztu dira.
<b>Legealdi planare jarraipena</b>	<p><b>Lan ildo nagusi edo estrategikoen berri eman da.</b></p> <p><b>Legealdi planaren jarraipena eta urteko helburu nagusiak aurkeztu dira:</b></p> <p><b>2024:</b></p> <ul style="list-style-type: none"><li>- Ongizate saila Fermiñenera lekualdatu da. Elkarlanerako erraztasun handiak ekarri ditu horrek. Erabiltzaileak eta herritarrak gustura daude kokapen berriarekin.</li><li>- Udaleko euskara plan berria idatzi da.</li><li>- Oiartzun irratitari bultzada bat eman zaio. Herrian gai horretan adituak diren zenbait pertsona elkartu dira horretarako.</li><li>- Euskara eta kulturartekotasuna sustatzeko programa abiatu da herriko ikastetxeetan. Gailu teknologien erabilera eginez herrira iritsi berriei harrera egiteko helburua du (guraso bileretan adibidez).</li><li>- Aurten lehen aldiz mugalderako udaleku ibiltariak antolatu dira. 30 bat gaztek parte hartu dute. Datorren urtean ere egiten jarraitzeko asmoa dago.</li><li>- Mugikortasun eta energia plana idatzi eta onartu dira.</li></ul>



- Lehen sektoreko doako ordezkapen zerbitzua martxan jarri da.
- Burujabetzen prozesua martxan jarri da. Aurten jardunaldiak antolatu dira Oiartzunen Udalbiltzarekin batera.
- Hirigintza aldetik plan ezberdinak daude martxan: Arraguan egingo diren 400 etxebizitzetako prozesu partehartzailea egin da. ELI6 eremuan ere 200 bat etxebizitza egingo dira. Horrekin lotuta, hirigintza ikuspegi feministatik
- Inbertsioetan. Futbol zelaia, bidegorriko azken tunela, Ugaldetxoko lotunea, Zurko baserriko bidezidorra eta Mendinekin ere. Bi lotura berri.

**2025:**

- Herritarren Arretarako gune berria martxan jarriko da. Lehen Sabadell-eko bankua zegoen lokalean egingo dituzte aurrerantzean herritarrek udalarekin lotutako gestioen gehiengoa.
- Mugikortasun plana eta energia plana (Rafael Pikabea...) gauzatzen hasiko dira.
- Atez atekoaren bilketa kudeaketan hobekuntzak egingo dira. Horretarako, Arraguan proba pilotu bat egingo da.
- Burujabetzen prozesuarekin jarraituko da. Mahaiak martxan jarriko dira jardunaldien ondoren.
- Hirigintza planak herritarrekin lantzen jarraituko dugu. Arragua, ELI6 eta Ugaldetxo.
- Musika eskola publikoa sortzeko parte-hartze prozesua egingo da. Aurten lanketa bat egin da.
- Liburutegia berritzeko parte hartze prozesuan lagundu. Eraikina berrantolatuko da, erakargarriago egin eta herritar guztien eskura jartzeko.
- Merkataritza txikia sustatzeko plana egingo da.
- Naturguneen azterketa egingo da, bioaniztasuna zaintzeko.
- Haur etorri berriek euskara ikasteko esperientzia pilotua martxan jarri nahi da. Hezkuntzarekin lantzen ari da gaia.
- Inbertsioak: Altzibarko gune estalia, ikasketa gela berria, energian, ur hoditerian, mugikortasunean...



<p><b>Ordenantza fiskalak eta aurrekontua</b></p>	<p><b>ORDENANTZA FISKALAK</b></p> <ul style="list-style-type: none"><li>- Ordenantza fiskalak hiru helburu izanik berritu dira:</li><li>- Errenten araberako ordenantzak, Klima aldaketaren aurkako neurriak saritu eta etxe hutsak merkaturatzeko hartu genitzakeen neurriak hartu.</li><li>- %2 igoera tasetan eta KPI-%3,4.</li><li>- Kohesio soziala zaintzeko, Aztikerrekin azterketa sozioekonomiko bat egin dugu Oiartzungo errealitatea ezagutzeko.</li><li>- Kohesio soziala. 3975 bizitza unitate Oiartzunen. Familia errentari dagokionez. 50 familia, adin txikiko batekin &lt;13.500€, 50 familia bi adin txikiko &lt;13.500-26.000€.</li><li>- &lt;13.500€ errenta duten bizikidetzak unitateentzat udako igerilekuetarako prezio murriztu bereziak egon dira.</li><li>- Trakzio mekanikoa familia ugari errentaren arabera.</li><li>- Gainerako herrietan bezala, Oiartzunen biztanleriaren zahartzea ikusten da. &gt;65, gorakoak 20 urteetan %8 igo da. Kiroldegian 65 gorakoak prezio murriztua izango dute, zahartze aktiboa bultzatzeko.</li><li>- Ekonomiarekin lotutako datuak: %75ak zerbitzuetan egiten du lan, industrian gizon eta emakumeen arteko ezberdintasun handia. Nekazaritza eta abeltzaintzan gutxiengoak egiten du lan. Langabezia tasa % 5 inguru.</li><li>- Transizio ekosoziala (energia, mugikortasuna eta hondakinak). Legeak energia kontsumoak % 35 jatsi behar ditugula eskatzen du. 15 eraikin nagusiak kontsumoaren %85aren erantzule dira. Elorsoro kiroldegia da Udalaren energia kontsumoaren %37a. Energiaren %32 energia berriztagarrietatik etorri behar da. Udalaren zuzeneko kontsumoa jaisteko neurriak. Ekonomia sektoreetan eta etxebizitzetan energia eraginkortasuna bultzatzea. Mugikortasun iraunkorraren aldeko neurriak. Klima aldaketaren inpaktuen jarraipena egin: ibaiak, naturguneak, itzalak...</li><li>- Hobariak: Energia aprobetxamendu sistemak (eguzki panelak) jarriz gero %50eko hobaria izango da. Instalazioetan %95eko hobaria egongo</li></ul>
---	---

da. A eta B energia-efizientzia lortzeko eraikuntza, instalazio edo obrak egin behar izanez gero, hobaria izango da, %95 eta %80 bitarte.

- Mugikortasun planean (2024-2028), 5 ildo estrategikotan jasotako 35 ekintza jasotzen dira: Oiartzungo ardatz aktiboak, garraio publikoa, kotxearen kultura murriztea, jarduera ekonomikorako eremuetan eragite eta hirigintza eta mugikortasuna.
- Mugikortasunarekin lotutako hobariak: etxebizitza komunitateetan bizikletak aparkatzeko gune berriak sortzeko obretan %95eko hobaria obren zergan. Interes publikoko obra izendatu beharko ditu plenoak. Trakzio mekanikoen zergako hobariak CO2 isurien arabera.
- Hondakinak: 7/2022 legea dator Europatik eta 2030erako % 70eko birziklatze tasa izan beharko dugu. Oiartzunen gaur egun %78ko birziklatzeko tasa dugu atez atekoari esker. Bakoitzak sortzen duen hondakinaren araberrako tasak ordaintzera bideratuta dago legea eta gu ere bide horretara lerratzen hasiko gara. Beste helburua defizit 0 filosofia da. Tasekin ordaindu beharko da hondakinen kudeaketa. Gaur egun, 1.000.000€ finantziatu behar du tasetatik. Orain arte %60 kubritzen zuen tasak eta Udalak gainerakoa ordaintzen zuen. Udalak gastu hori nola murriztu aztertuko du. Aurten, hala ere, hondakinen tasa garestitu egingo da. Ondorengoa izango da tasa: 4€/hilabetean, 56€/lauhileko eta urtean 168€. Gipuzkoako beste herrieekin konparatuz 5 merkeen artean gaude, bilketa sistema dena delakoa dela. Defizit 0-rako, 200€ inguruko tasa beharrezkoa izango da etorkizunean.
- Etxebizitzak: gainkargua etxe hutsetan %100 izango da. Hobari berri bat %50eko hobaria izango da Bizigune edo ASAP programetan sartzen diren etxebizitzentzat.

#### **UDALEKO AURREKONTUA**

- 2025eko aurrekontua 20 milioi ingurukoa izango da.
- Sarrerak: Nagusiki Foru Aldundiko funtsez osatua da. Zergak % 33a. %17a tasak

	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Gastuak: Pertsonal gastuak gastuen herena dira (%34), diru laguntzetan %18. Gastu arruntak eta zerbitzuak %36,4. Inbertsio errealetarako %10,2.</li> </ul>
<p><b>Auzoa</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Eskaerak: <ul style="list-style-type: none"> <li>○ <b>Goiko parkeko</b> zuhaitzak kimatu: bere prozesu logikoaren baitan egingo da.</li> <li>○ <b>Ariketa fisikoa</b> egiteko makinetan neurria erregulatzeko aukera. Azterketa eskatzen du, baina eskaera jaso dago.</li> <li>○ <b>Autobus geltokiko argia konpondu behar da.</b> Egina</li> <li>○ <b>Topoaren azpiko gunera ura isurtzen da. Urez betetzen da topotik Xorrolako geltokira doan pasabidea</b></li> <li>○ <b>TRAFIKOA</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ <b>Autopistako kamioiak</b> auzora sartzen dira nahastuta. Hausten ez den hesi bat jarri da.</li> <li>▪ <b>Ganboxa-Larrezabalaeta</b> artean oinezkoek lehenetasuna izateko eta kotxeen abiadura jaisteko seinalitika, marrazketa...</li> <li>▪ <b>Ganboxa kaleko aparkaleku</b> irteeran ispilua jarri. Udaltzainek baloratu dute ez dela beharrezkoa.</li> <li>▪ <b>Estankoko plazan kotxeak gaizki aparkatzen dira</b></li> <li>▪ <b>Arriskutsu dago GI 636 errepidea gurutzatzea.</b> Lezoko Udala eta bizilagunak FAn egon dira. Topoko geltoki inguruan paso bat prestatuko dute</li> </ul> </li> <li>○ <b>Heltak Arraguan eskaintza izatea.</b> Oraindik ez dago lokal egokirik, baina eskaera jaso dago eta aintzat hartuko da.</li> </ul> </li> <li>- 2024ko egitekoak: <ul style="list-style-type: none"> <li>○ <b>Auzoa eraberritzeko</b> proiektua elkarrekin lantzeko <b>parte hartze prozesua</b> egin da. Udalak <b>oso balorazio positiboa</b> egiten du, baina parte hartze kopuruari dagokionez, baita egindako ekarpenen mailagatik ere.</li> <li>○ Topoko geltokiak udaleko <b>tramite batzuk egin ahal izateko makina bat</b> jarriko da: errolda agiria, Landetxeko sarrerak, ordainketak...</li> <li>○ <b>Trafiko arazoez</b> luze eta zabal hitz egin da. Udalak partekatzen du auzotarren kezka, eta era berean ezintasunak ere badauzka errepide-sarea ez baita bere eskumenekoa. Bestetik, Lezoko Udala Gaintxurizketako herritarrekin batera Foru Aldundian egon da. Proposamen bat lantzen ari dira</li> </ul> </li> <li>• <i>Topoko geltokian udal tramiteak egiteko makina egongo da, pertsonak ere?</i> <ul style="list-style-type: none"> <li>○ Arraguaren kasuan makina bakarrik, pertsonarik ez. Udaletxean pertsonen gain makina egongo da.</li> </ul> </li> <li>• Aldundian Bildu zegoenean planteamendu bat egin zen Lanbarrenean. Nire ustez hori eginez gero %70 jaitsiko litzake trafikoa.</li> </ul>

- Guk irteera bat egitea planteatzen dugu, kalte gutxi sortu eta irteera ona emango luke. Orain arte ez da proiekturik aurkeztu, baina orain ingenieritza bat hartu dugu eta proiektu bat aurkeztu dugu. AHTrekin ere gauza bera egin dugu, ez dugu erantzunik jaso oraindik. Gure proiektuaren baitan AHTak sortuko duen kalteak asko gutxituko lirateke. Madrilen bertan Santanori hitzordua eskatu diogu, baina ez dugu erantzunik jaso. Berriz ere joko dugu, erantzuna jaso arte.
- Indar gehiago egin daiteke? Sinadurak jaso, ala mobilizatuz? Ulertzen dugu udal bezala zaila dela, baina agian herritarrek zeozer egin dezakegu. Gai honek Arraguakoei baino, herritar gehienei eragiten badio.
- Ondoko etxean bizi naiz eta ea zer gertatu zen kotxearekin. “Murete” bat edo egin beharko litzake, zeozer babesteko. Udaltzainek partea izango dute.
  - Irteera zuzenagoa egitea aurreikusten dugu, gainean gaude. Bidegurutze dena hartu dugu eta beste leku batzuetatik bideratzeko aukera aztertzen gabiltza. Haiak ere aurrerapauso bat eman behar dute. Dena mahai gainean daukagu, eta Aldundiarekin biltzen garenean
- Bi karril egiteko aukera komentatu duzu, non izango litzateke.
  - Arraguako errotonda nagusitik, hurrengo errotondaraino. .
  - Ez du konpontzen arazoa, bikoiztu egingo luke trafikoa. Askoz ere trafiko gehiago litzateke.
  - Proiektua aztertzen gabiltza. Hondarribiko autobusarekin daukagu arazoa.
  - Oreretatik ateratzen denean Aldi-raino eta gero buelta.
- Gastuetan defizitik geratzen da?
  - Gaur egun udalak kontuak garbi dauzka. Ez dauka defizitik. Egia da ere ez dugula altxortegirik. Azken urteetan inbertsio fuerteak egin ditugu: Landetxe, futbol zelaia, frontoia... Azken bi urteetan gastuak jaitsi ditugu eta ez daukagu prestamorik. Hori dela eta posizio on batean gaude, prestamoa behar izanez gero eskatzeko aukera izango genuke. Arraguan deposito berrian egin behar da 800.000 euroko kostua izango du. Oso baldintzatuta egongo da datozen urteetan Arraguako garapenarekin.
- Arraguan gauza berririk ez da egin azken urte honetan, mantenu gastuak egin dira.
  - Datozen urteetan auzoak garapen handia izango du.
- Ariketa fisikoa egiteko tamaina ezberdineko makinak eskatu ziren. Nahiko jarri berriak dira eta apurtu arte itxarongo dugu.
  - Auzotar batek dio bat apurtuta dagoela.
- Topoaren azpira ura isurtzen da.
  - Beraien kontua da. Guk abisua pasa genien, baina aldaketarik ez dutela egin ikusi dugu. Arazo bat dugu nibelean, putzuak geratzen dira. Kanalizazioa nondik egin ikusi behar dugu, ea ura nondik bidera dezakegun ikusteko.

- 2026 urruti dago. Kezka handia dago aparkalekuekin. Lehenengo fasean 100 kotxerentzat soluzioa behar dute.
  - Pentsatuta dago. Prozesuan zehar irtenbidea emango zaio. Anbulategi ondoan. Gaur egungo parkinetan etxeak egiten hasten direnean 100 metro aurrerago aparkalekua egingo da. Aparkaleku kontaketa osoa egin dugunean, askoz hobe geratuko litzateke anbulategi aurrean egin baino atzean beste batzuk egitea. Baina oraingoz ez dago akordiorik Oreretako udalarekin.
- Anbulategia zabalik dagoenean hori dena topera dago.
  - Oreretarekin akordioak ez digu baldintzatzen. Guk aukerak dauzkagu Aurrera egiteko.
- Arazorik ez dira egongo obra hastean?
  - Beti soluzioa eman beharko da obra hasi aurretik
- Baina obrak hasten direnean aparkaleku gehiago beharko dira, auzokoak + lanean daudenak.
  - Bai, hori dena aurreikusia dago.
- Ugaldetxon futbol zelai berria egiten ari dira. Jolasten dutenean dutxatzera betiko lekura joan behar dute. Jendea bazter-bazterretik joan behar du. Sustoren bat jada gertatu da.
  - Bai, badakigu arazo hori badagoela, eta oso kezkatuta gaude. Zebrabide berriak egingo dira, gure itxaropena zen gaurko egina egongo zela. Seinaleak jarriak daude, baina zebrabideak jarri behar dira. Baden batzuk ere jarriko dira jendea motelago joateko. Hori dena kontutan hartuta daukagu. Jokalari guztiak aldageletara entrenatzailearekin joango dira. Pentsatzen dugu neurri hauekin nahikoa izango dela. Aldundiaren bideak dira eta haien baimena behar dugu. Gerora ere zebrabideak bertan geratzea ongi ikusten dute aurrerantzean (jendeak bide hori asko erabiltzen baitu). Bide guztia dena aztertu nahi dugu, etorkizunean motelago joateko bide horretan. Abiadura handia dela eta susto handiak egon izan dira. Egia da radarrari esker jendeak abiadura gehiago kontrolatzen duela.
  - Egia da Ergoien jarri ditugun radar pedagogikoak Ergoien hiru aldiz apurtu digutela eta Badenak hiru tokitan kendu eta erre kara bota dituztela ostiral gau batean. Garen bezalakoak gara eta trafiko arazoak mantentzen dira.
- Frontoi ondoko zaborrontziak gainezka daude, jendea saiatzen da ongi jartzen. Beti beteak daude, nazka ematen du.
  - Hondakinekin bakoitzak sortzen duela ordaindu behar duela badakigu. Baina sistema doitzea dagokigu. Organikoenak eta errefusarenak mantenduko ditugu, baina papera eta ontzi arinak handiago jarriko ditugu. Poliki-poliki papera eta ontzi arinarentzat poltsa bereziak sortuko ditugu (zenbakituak).
  - Ekarpena: organikoentzat ere poltsa horiek udalak atera ditzala.
- Arratoi asko daude, ia lehoiak bezala doaz. Ez dute beldurrik, jendearen ondotik ibiltzen dira.
  - Tratamendua egiteko zonaldea topoaren ardura da, beraiekin harremanetan jarri gara arratoiaren aurkako tratamendua

	<p>egiteko. Denboraldika doaz: ugaltzea eta janaria bilatzen dute. Hondakinetatik oso erraz lortzen duten jana.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>○ Jendearen atzetik paseatu egiten dute. Frontoiaren lokaletik ateratzen dira, Xorrolaren paradaren ondotik.</li> <li>○ Azaroa inguruan gehiago egoten dira. Lehen urtean behin zena orain maizago da.</li> </ul> <ul style="list-style-type: none"> <li>● Elizalden EH plazan aparkalekua dago. Mugikortasun murriztuko bi plaza daude. Askotan joaten naiz aparkatzera eta ez dago lekurik. Niretzat ez da erraza beste zonalde batean aparkatzea. Bi plaza okupatuko niela esan nien, idatzi bat egin nuen, arautegia betetzen duzuela badakit. Oiartzun dena penditza da, nora joango naiz aparkatzera? Eskaera kontuan hartuko dela adierazi da.</li> <li>● Jende asko bada animaliak zaintzen dituen, janaria botatzen dute. Katuez gain arratoiak, itsas-txoriak... etortzen dira. Jendeak kuboetan utzi beharrean hondakinak poltsetan uzten ditu ere. Beste batzuk iturrira joaten dira kuboak garbitzera, eta hondakinak bertan uzten dituzte.</li> <li>● Arkaleko zonan itxitura antzeko bat jarriko zela ez zen komentatu, hondakinei aurre egiteko? <ul style="list-style-type: none"> <li>○ Bai aipatu zen, bereziki Itsas txoriei aurre egiteko. Baina, sistema berriari denbora bat eman nahi diogu.</li> <li>○ Lanpostu bat sortu da, atez ateko teknikari bat. Gune guztiak zaintzen joango da. Jarraipen zehatz bat egiten hasiko da. Duela gutxi hasi da eta lan asko dauka. Ziurrenik beste bat beharko da. Poligonotako hondakinak ere gureganatu nahi ditugu. Hori dela eta bitarteko gehiago jarri beharko dira gai honetan.</li> </ul> </li> <li>● Noiz hasiko da? <ul style="list-style-type: none"> <li>○ Proba pilotuak egiteko asmoa dago Tolarietan eta Arraguako dorreetan. Zergatik hauetan? Arazo handiena ematen diguten lekuak direlako. Kontutan hartu behar da batek gaizki egitea besteen lana zapuzten duela.</li> </ul> </li> <li>● Kotxe bat bada aparkalekuan urte bat baino gehiago daramana. Granatea da. Gurpila zulatuta dauka eta hor jarraitzen du. <ul style="list-style-type: none"> <li>○ Bai, udaltzainekin landu dugu eta aztertzen gabiltza.</li> </ul> </li> </ul>
<b>Itxiera</b>	<p>Burujabetzetako parte-hartze prozesuaren eta burujabetza jardunaldien berri eman da. Batzarra baloratzeko orria banatu da. Asistentzia orrian jasotako posta elektronikoetara gaurko akta bidaliko dela gogorarazi da.</p>

**BALORAZIO ORRIA:**

Hizlariak: bileran zehar emandako azalpenak	8
bilera ongi gidatu da	8





Bileran erabili den metodologiaren egokitasuna	8
Auzotar kopurua	5
Auzotarren partehartzea (ekarpenak egiten)	7
Saioa probetxugarria izan al da?	8
Egunaren egokitasuna	7
Orduaren egokitasuna	7
Lekuaren egokitasuna	8